

2013KO UZTAILAREN 24AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.	ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 24 DE JULIO DE 2013.
=====	=====
<u>BERTARATUAK</u>	<u>ASISTENTES</u>
<u>LEHENDAKARIA</u>	<u>PRESIDENTE</u>

Imanol Landa Jauregi jn.

<u>ALKATEORDEAK</u>	<u>TENIENTES DE ALCALDE</u>
----------------------------	------------------------------------

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ/PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ/PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ/PNV)
Ana Helguera Líbano (EAJ/PNV)

<u>ZINEGOTZIAK</u>	<u>CONCEJALES</u>
---------------------------	--------------------------

Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Kepa Miñambres Llona (EAJ/PNV)
Josu Loroño Goienetxe (EAJ/PNV)
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Marisa Arrue Bergareche (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Jesús Toca Toña (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Javier Ruiz Egaña (PP)
Jone Ruiz De Eguilaz Salazar (PP)
Fco. Javier Elorza Hormaeche (PP)
Ana Basilio Carnicer (PP)
Maitane Nerekan Umaran (BILDU)
Bingen Mirena Saitua Iruretagoiena (BILDU)
Miren Arantza Gutiérrez Paz (BILDU)
Roberto Martin Prieto (BILDU)

Agustín Ruiz Estivariz (PSE-EE (PSOE))

<u>IDAZKARI NAGUSIA</u>	<u>SECRETARIO GENERAL</u>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako arratsaldeko bostetan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontuhartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

Luis Almansa udalbatzar-kideak bertaratu ez izana desenkusutzen du.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

85.- 2013KO EKAINAREN 25AN GETXOKO UDALBALTZAK EGINDAKO AURREKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.

2013ko ekainaren 25an Getxoko Udalbatzak egindako aurreko ohiko bilkuraren Akta onartu zen.

OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA EUSKARA

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las diecisiete horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Excusa su asistencia el corporativo Luis Almansa.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

85.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 25 DE JUNIO DE 2013.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 25 de junio de 2013.

HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y EUSKERA

**86.- 2013KO 2. HIRUHILEKOKO
AURREKONTUAREN
BURUTZAPENAREN BERRI
EMATEA.**

Espedintearen kontu emanda, eta Ogasuna, Kontuetako, Ekonomia, Sustapeneko, Giza Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordearen eskariz, Osoko Bilkura 2013eko 2. hiruhilekoari dagokion Aurrekonturen Exekuzio-egoeren jakinaren gainean geratzen da, zeinari buruzko dokumentazioa aipaturiko espedientean jasota dagoen.

Proposamena irakurri ostean, Ana Helguera andreak esku-hartzen du eta Gobernu-Taldearen izenean adierazten du 2013. urtean aurrekontu-luzapenean gaudela, beraz, luzatutako aurrekontuari Gobernu-Taldeak ekitaldi honetarako planteatutako aurrekontu-proiektura egokitzeko beharrezkoak diren aldaketak egiten ari zaizkie eta hori da egiten dituen balorazioetarako erreferentziazko agiria. Aurrekontu horrek 99,8 milioiko diru-sarrerak aurreikusten zituen eta horietatik %55a jada gauzatu da eta, gastuei dagokienez, hiru oinarrizko habeetan, hots, Gizarte-Politika, Kalitatezko Zerbitzuak eta Sustapen Ekonomikoa, normaltasun osoz ari da gauzatzen. Gizarte-laguntza espezializatuetan 14 milioi euro aurreikusten dituela azpimarratzen du, zeintzuen bidez, oinarrizko zerbitzuei eta kalitatezko mailarekin, gainera, egiten dieten aurre; horrek aurrekontuaren %35 kontsumitzen du eta, sustapen ekonomikoari dagokionez, aurreikusitako jarduerak gauzatzen ari dira. Inbertsio estrategikoei dagokienez, bai Getxo Antzokia bai Romoko Kultur Etxea, ekitaldi honetarako aurreikusitakoarekin bat ari dira

**86.- DACIÓN DE CUENTA DE
EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA 2º
TRIMESTRE 2013.**

Dada cuenta del expediente, y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara queda enterado el Pleno de los Estados de Ejecución Presupuestaria correspondientes al 2º trimestre del ejercicio 2013 cuya documentación consta en el expediente de referencia.

Tras dar lectura a la propuesta interviene Ana Helguera que en nombre del Equipo de Gobierno manifiesta que el año 2013 está en prórroga presupuestaria por lo cual al presupuesto prorrogado se les están realizando las modificaciones necesarias para ajustarlo al proyecto de presupuesto que el Equipo de Gobierno planteo para el presente ejercicio y ese es el documento de referencia para las valoraciones que realiza. Dicho presupuesto contemplaba 99,8 millones de ingresos de los cuales se han ejecutado un 55% y respecto al gasto, en los tres pilares básicos como son Política Social, Servicios de Calidad e Impulso Económico se está desarrollando con plena normalidad. Recalca que recoge 14 millones de euros en ayudas sociales especializadas, que hace frente a los servicios básicos y con un nivel de calidad supone el 35% del presupuesto y en relación al impulso económico están realizando las actuaciones previstas. En el aspecto de inversiones estratégicas, tanto el Getxo Antzokia como la Kultur Etxea de Romo están desarrollándose según lo previsto para el presente ejercicio. Manifiesta que el resto de inversiones se van a realizar con el remanente de

gauzatzen. Gainerako inbertsioak Diruzaintzako soberakinekin gauzatuko direla adierazten du, baina inbertsioaren ehunekoa ezingo da zehaztu harik eta hilabete honetan aurrekontu-soberakinen xedeari dagokionez estatuko legearen kontzeptuak zehazten eta argitzen dituzten Aurrekontu Egonkortasunerako Foru Araua eta haren Garapen-Dekretua onartu arte.

Eduardo Andrade jaunak esku-hartzen du adieraziz, bere esku-hartzean 2013ko lehenengo sei hilekoa 2012koarekin alderatuko duela. 2013ko aurrekontua Gobernu-Taldeak inongo talde politikoekin akordiora iristeko gai izan ez delako luzatu dela gogorarazten du. Aurrekontua luzatutako 84 milioi gehi Diruzaintzako 33 milioiko soberakinak osatzen dute. Bere azterketan, zergak igotzeko EAJ-PNV eta BILDU taldeen arteko ituna bereziki OHZn, gainbalioan eta ibilgailuen gaineko zergan nabarmendu dela azpimarratzen du, gehitu egin baitira gainerakoak nabarmen jaitsi diren bitartean, bereziki, establezimenduak irekitzeagatik tasak, zeinak, merkataritza-eremuan jarduera jaitsi egin dela islatzen duen. Aldiz, isunak gehitu egin dira eta, beraz, baita kontzeptu horretan bildutakoa ere, %7 gehitu ere. Gastuei dagokionez, ez du sumatu Gobernu-Taldeak aipatzen duen soiltasun hori, neurri handi batean errepikatu egiten baitira kontzeptuak eta haien zenbatekoak. Ekitaldiaren erdia jada igarota, gizarte-laguntzetara bideratutako aurrekontutik %25a soilik gastatu izanak, familiei zuzenduriko aparteko laguntzetan deus ere gastatu ez izanak baina, aldiz, euskalduntzean gastua %14 eta jaietan %31 igo izanak arreta deitzen dio. Etxebizitzaren eta inbertsioen arloan ere ez dela ezer gastatu eta guztia Getxo Antzokian eta Romoko Kultur Etxean gastatu dela adierazten du. Enpleguaren eta turismoaren sustapenera eta

Tesorería y que éste no se ha podido definir en cuanto al porcentaje a dedicar la inversión hasta que en este mismo mes de ha aprobado la Norma Foral de Estabilidad Presupuestaria y el Decreto de Desarrollo que determinan y clarifican los conceptos de la ley estatal en relación a los destinos de los excedentes presupuestarios.

Eduardo Andrade interviene manifestando que en su intervención va a comparar la ejecución del primer semestre de 2013 con la del 2012. Recuerda que el presupuesto del 2013 está prorrogado porque el Equipo de Gobierno ha sido incapaz de llegar a acuerdo con ningún grupo político. El presupuesto cuenta con 84 millones prorrogados más 33 millones de remanentes de tesorería. En su análisis se evidencia que la alianza del PNV y BILDU para subir impuestos se ha notado de manera especial en el IBI, en la plusvalía y en vehículos ya que se han incrementado mientras que el resto ha bajado notablemente, sobre todo las tasas por apertura de establecimientos, lo que refleja la caída de la actividad en el ámbito comercial. En contraste con ello, las multas, se ha incrementado su recaudación en un 7%. En relación a los gastos no aprecia la austeridad que manifiesta el Equipo de Gobierno ya que reproducen básicamente concepto y cantidades. Llama la atención que en el presupuesto destinado a ayuda social solamente se ha gastado el 25% a la mitad del ejercicio, que nada se ha gastado en ayudas extraordinarias a familias mientras que el gasto en euskaldunización ha subido un 14% y los festejos un 31%. También manifiesta que en el área de vivienda e inversiones no se ha gastado nada y todo se invierte en el Getxo Antzokia y la Kultur Etxea de Romo. Lamenta que el gasto en promoción de empleo, turismo y ayudas al comercio es

merkataritzara bideratutako laguntzen arloan gastua iaz baino txikiagoa izateaz kexatzen da. Datuek herria langabeturik dagoela eta Gobernu-Taldeak hartutako jarrera pasotarekin eta utzikeriarekin ez dela ezer egiten adieraziz amaitzen du.

Bingen Saitua jaunak bere esku-hartzea BILDU taldeak Gobernu-Taldeak egiten duen aurrekontu-kudeaketa ez duela partekatzen adieraziz hasten du, Udaleko Osoko Bilkuran onartua izan ez den aurrekontua aplikatzen ari baita. Alderdi Popularrari erantzuten dio EAJ-PNV eta BILDU taldeen arteko akordioak 2013. urterako ibilgailuen gaineko zergan soilik zituela igoera-ondorioak eta ez OHZn, adierazi duten gisan eta, iaz, inolaz ere ez dela %3,5eko igoera izan, hortik %2,5 Bizkaiko Foru Aldundiak egiten duen eguneratzeari baitagokio, PP taldeak ondo dakien gisan; beraz ez da egia 2013rako OHZren igoera EAJ-PNV eta BILDU taldeen arteko igoera-akordioaren ondorioa denik.

Ana Helguera andreak euskara eta jaien arloko gastuei dagokienez, horiek igotzearen arrazoa Kulturako Erakunde Autonomoak egiten zituen gastuak partida horietan sartu izana dela adierazten du, baina, berez, jaietarako guztira egindako zuzkidurak %20 jaitsi direla. Merkataritzari bideratutako laguntzari dagokionez, elkarteei diru-laguntza urte amaieran ematen zaiela gogorarazten du eta bizilagunen enplegua eta enplegarritasuna hobetzeko egin izan den prestakuntza-jarduera zehazten du.

Eduardo Andrade jaunak bere datuak iazko ekitaldiaren lehenengo seihilekoaren eta aurtengo ekitaldiaren lehenengo seihilekoaren arteko alderaketan oinarritzen direla azpimarratzen du

menor que el año pasado. Finaliza manifestado que los datos reflejan que el pueblo está parado y que nada se hace con la actitud de pasotismo y de desidia que se ha implantado en el Equipo de Gobierno.

Bingen Saitua comienza su intervención manifestando que BILDU no comparte la gestión presupuestaria que realiza el Equipo de Gobierno ya que están aplicando un presupuesto que no ha sido aprobado por el Pleno del Ayuntamiento. Replica al Partido Popular en el sentido de que el acuerdo del PNV y BILDU para el año 2013 sólo tenía efectos de incremento en el impuesto de vehículos y no en el IBI, como han manifestado, y que en ningún momento fue un incremento de un 3,5% el año pasado, ya que de ello un 2,5% era la actualización que realiza la Diputación Foral de Bizkaia como bien conoce el PP, por lo que estima que es falso manifestar que el incremento del IBI para el año 2013 se debe a un acuerdo de subida de impuesto por parte del PNV y BILDU.

Ana Helguera en relación a los gastos de euskera y festejos justifica que se han incrementado porque se han incorporado en estas partidas gastos que se venían realizando por el organismo autónomo de Cultura pero que realmente se han reducido para fiestas las dotaciones totales en un 20%. En relación al apoyo al comercio recuerda que la subvención a las asociaciones se realiza a fin de año y detalla la actuación formativa que se ha venido realizando para la mejora del empleo y empleabilidad de los vecinos.

Eduardo Andrade insiste en que sus datos se basan en la comparación del primer semestre del presente ejercicio y del pasado y se ratifican que los festejos han subido su dotación presupuestaria en un

berriro ere eta jaietako aurrekontu-zuzkidura %31 igo dela berresten du, enpleguaren alorrean, urte erdian, iaz baino hiruren bat gutxiago gastatu dela eta jarduera ekonomikoko gainerako arloetan aurrekontuan finkaturikoaren %20 ere ez dela gastatu. BILDU taldeari adierazten dio iaz igoera bat itundu zuela eta, baita, OHZren ordainketan familia kaltetuenei laguntzeko funts bat sortuko zela ere; alabaina, OHZren igoera aplikatu bazen ere, oraindik orain, funts hori ez da abian jarri. Aurten, ibilgailuen gaineko zergen izugarritzko igoera aplikatu dela azpimarratzen du, beraz, zergen igoeran Gobernu-Taldearen konplize direla uste du.

Maitane Nerekan andreak Talde Popularrak bai zergei dagokienez bai jai-batzordeei ematen zaizkien laguntzak gehitu direnari dagokionez adierazitako gezurrak oso larriak iruditzen zaizkiola esanez erantzuten dio eta baieztapen horiek egitea eskuzabalki batzorde horietan lanean diharduten pertsonenganako errespetu falta dela.

Ana Helguera andreak berriro errepikatzen du jaien kostua, Informazio-Batzordeetan behin eta berriz azaldu den moduan, jaitsi egin dela, Enpleguaren alorreko gastuari dagokionez, Lanbide-k arlo horretan dituen eskuduntza berriak kontuan hartu behar dira.

Eduardo Andrade jaunak enpleguaren, jarduera ekonomikoen eta turismoaren alorrean egiten den guztiari beren babesa ematen diotela azpimarratzen du. Jaietako aurrekontuari dagokionez, aurkeztutako dokumentazioan jartzen duenera egiten du igorpena eta bere kritika dokumentazioan agertzen diren zenbakizko datuetan baino ez dela oinarritzen adieraziz amaitzen du.

31%, mientras que en el ámbito de empleo a mitad de año se ha gastado un tercio menos que en el año 2012 y en el resto de las áreas de actividades económicas no se llega a gastar el 20% de los presupuestado. A BILDU le indica que pactó un incremento el año pasado y también había pactado que se iba a crear un fondo para ayudar aquellas familias mas desfavorecidas para el pago del IBI pero así como el incremento del IBI se aplicó, ése fondo todavía no se ha puesto en marcha hasta la fecha. Recalca que este año ha habido un incremento espectacular en vehículos por lo que estima que son cómplices con el Equipo de Gobierno en el incremento de los tributos.

Maitane Nerekan le replica manifestando que le parece muy grave las mentiras que manifiesta el Grupo Popular tanto en lo referente a impuestos como en que se hayan incrementado las ayudas a las comisiones de fiestas, y realizar esas afirmaciones es una falta de respeto para todas aquellas personas que de una manera desinteresada trabajan en dichas comisiones.

Ana Helguera insiste en que en el coste de las fiestas ha bajado su cuantía tal y como se ha explicado en repetidas veces en la Comisión Informativa. Respecto al gasto en empleo, hay que tener en cuenta las nuevas competencias de Lanbide en esta materia.

Eduardo Andrade recalca que el Grupo Popular apoya todo lo que se haga en el área de empleo, actividades económicas y turismo. En relación al presupuesto para fiestas, se remite a lo que viene en la documentación presentada y finaliza manifestando que su crítica se basa únicamente en los datos numéricos que figuran en la documentación.

Maitane Nerekan andreak Alderdi Popularrari errealitatea ezagutu nahi badu jai-batzordeetara hurbiltzea, haiek egiten duten lan garrantzitsua ikustea eta jasotzen duten diru-laguntzetan gehikuntzarik sumatu al duten galdetzea gomendatzen dio.

Maitane Nerekan aconseja al Grupo Popular que si quiere conocer la realidad, se acerque a las comisiones de fiestas, vea el trabajo tan importante que realizan, que les pregunte si han visto un incremento en las subvenciones que reciben.

87.- UDAL-DIRUZAINZAREN HIRUHILEKO TXOSTENAREN, ETA ALDIAN ALDIKO KONTUHARTZAILEAK EGINDAKO FAKTUREN ZERRENDAREN BERRI EMATEA, 15/2010 LEGEAREN LAUGARRENA.3 ETA BOSGARRENA.4 ARTIKULUETAN XEDATUTAKOA BETEARAZIZ (2013KO 2. HIRUHILEKOA).

87.- DACIÓN DE CUENTA DEL INFORME TRIMESTRAL DE LA TESORERA MUNICIPAL Y RELACIÓN DE FACTURAS EMITIDA POR LA INTERVENTORA ACCIDENTAL EN CUMPLIMIENTO DE LO DISPUESTO EN LOS ARTÍCULOS CUARTO.3 Y QUINTO. 4 DE LA LEY 15/2010 (2º TRIMESTRE DE 2013).

Ogasuna, Kontuak, Ekonomia Sustapena, Giza Baliabideak, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordeak proposatuta, Osoko Bilkura Diruzaintzako 02/13 eta Kontuhartzaitzako 02/13 txostenen edukiaren jakinaren gainean geratzen da, aurreikusitakoa betez egindakoak, hurrenez hurren, uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4.3 eta 5.4 artikuluetan; haien bidez, Berankortasunaren aurkako Borroka Neurrien 3/2004 Legea aldatzen da, izapidetu eta erakunde eskudunari bidaltzeko eta erantsitako txostena argitaratzeko, 15/2010 Lege horren 4. eta 5. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, el Pleno quedo enterado del contenido de los informes de Tesorería nº 02/13 e Intervención nº 02/13, emitidos en cumplimiento de lo previsto, respectivamente, en los artículos 4.3 y 5.4 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, por la que se modifica la Ley 3/2004 de Medidas de Lucha contra la Morosidad, para que se proceda a su tramitación, remisión a institución competente y publicación de informe agregado, según lo previsto en los propios artículos 4 y 5 de la citada Ley 15/2010.

Behin proposamena irakurrita, Ana Helguera andreak esku-hartzen du espedienteetan jasota dauden txostenetan adierazten denez, berretsitako fakturen %99,95a 30 eguneko epean ordaindu dela eta epe horretan ordaindu ez diren

Tras dar lectura a la propuesta interviene Ana Helguera para manifestar que tal como se manifiesta en los informes que obran en el expediente el 99,95% de las facturas confirmadas se han pagado en la fecha de 30 días y las que no se han

fakturak, gehienez, bi egun beranduago ordaindu direla adierazteko; eta, baita, arrezagutze eta ordainketaren zenbaketa orokorrari dagokionez, hori 60 eguneko dela adierazteko ere; %9a soilik ezin izanda horretarako gaitutako epean gauzatu eta horretarako arrazoiak, batez ere, fakturarekiko, langileen baja- edo opor-egoerekiko adostasunik eza eta fakturen sinadura elektronikoa berria abian jarri izana izan dira.

Eduardo Andrade jaunak erantzuten du araudian ordainketa-epeak aldatu direnez, aurreko hiruhilekoekin ezin dela alderaketarik egin, beraz, hurrengo hiruhilekoan egingo duela bere balorazioa.

pagado se han excedido en un plazo máximo de dos días y en relación al cómputo global de reconocimiento y pago que es de 60 días, únicamente un 9% no se ha realizado en plazo y se ha debido fundamentalmente a la falta de conformidad con la factura, a las situaciones de baja o vacaciones del personal y a la puesta en funcionamiento de la nueva firma electrónica de facturas.

Eduardo Andrade replica que habiéndose variado los plazos de pago recientemente en la normativa no cabe comparación con trimestres anteriores por lo que en el próximo trimestre hará su valoración.

88.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA: TRANSFERENTZIAZ BALIATURIK AURREKONTUA ALDARAZI.

88.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.

Dekretuen berri eman da, eta Ogasuna, Kontuetako, Ekonomia, Sustapeneko, Giza Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordeak proposatuta, Osoko Bilkura Transferentzien bidez egindako aurrekontuaren aldatetari buruzko dekretu hauen jakinaren gainean geratzen da:

Dada cuenta de los Decretos, y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara el Pleno queda enterado de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante uso de transferencias:

3083/2013 zenbakidun Dekretua 4.630,00 euroko zenbatekoarekin. Altzariak erostea eta RC zabaltzea giltzetzako segurtasun-armairua erosteko.

Decreto nº 3083/2013 por un importe de 4.630,00 euros. Adquisición de mobiliario y ampliación RC para adquisición de armario de seguridad para llaves.

3113/2013 zenbakidun Dekretua 3.484,80 euroko zenbatekoarekin. 80 hesi erosteko, jaietan eta ekitaldietan erabili daitezten.

Decreto nº 3113/2013 por un importe de 3.484,80 euros. Adquisición de 80 vallas para utilizar en fiestas y eventos.

3231/2013 zenbakidun Dekretua 2.033,00 euroko zenbatekoarekin. Luis López Osés, 3 - 1º H babestutako

Decreto nº 3231/2013 por un importe de 2.033,00 euros. Caldera para apartamento tutelado Luis López Osés, 3 - 1º H.

apartamenturako galdara

89.- DEKRETU BATEN BERRI EMATEA, KREDITUA PRESTATZEAREN BIDEZ EGINDAKO AURREKONTUAREN ALDAKETARI BURUZKOA.

Dekretuaren berri eman da, eta Ogasuna, Kontuetako, Ekonomia, Sustapeneko, Giza Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordeak proposatuta, Osoko Bilkura kreditua prestatzearen bidez egindako aurrekontuaren aldatetari buruzko dekretu hauen jakinaren gainean geratzen da:

3185/2013 zenbakidun Dekretua 959,96 euroko zenbatekoarekin. 2012ko Hauteskunde Erroldako eguneratze-lanen ordainketa.

Roberto Martin Prieto udalbatzar-kidea bilkurara gehitzen da.

89.- DACIÓN DE CUENTA DE UN DECRETO DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.

Dada cuenta del Decreto, y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara el Pleno queda enterado de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante uso de crédito:

Decreto nº 3185/2013 por un importe de 959,96 euros. Pago de los trabajos de actualización del Censo Electoral del año 2012

Se incorpora a la sesión el corporativo Roberto Martín Prieto.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

MOCIONES E INTERPELACIONES

90.- EAJ, BILDU ETA PSE-EE ALDERDIEK BATERA AURKEZTUTAKO MOZIOA: FRANKISMOAREN KRIMENEN AURKAKO 4591/10 KEREILA.

90.- MOCIÓN CONJUNTA DE LOS GRUPOS MUNICIPALES PNV, BILDU Y PSE-EE S/LA QUERRELLA 4591/10 CONTRA LOS CRÍMENES DEL FRANQUISMO.

Idazkariak mozioa irakurtzen du.

El Secretario da lectura a la moción.

Koldo Iturbe jaunak esku-hartzen du frankismoaren krimenen aurkako euskal plataformak mozio hau talde desberdinei aurkeztu diela adierazteko. Mozio hau beste udalerrri batzuetan ere aurkeztu da eta Eusko Legebiltzarrean onartua izan da.

Interviene Koldo Iturbe para indicar que la plataforma vasca contra los crímenes del franquismo presentó esta moción a diferentes grupos y que también la moción ha sido presentada en otros municipios y ha sido aprobada en el Parlamento Vasco.

Talde proposatzaileek bere egin dute mozioa eta balorazio pertsonal gisa gai hau hurbil sentitzen duela adierazten du, familiako gorabeherak direla medio; izan ere, bere aitona gudaria izan zen eta espetxeratuta egon ondoren erbestera joan behar izan zuen. Belaunaldi hark egindako lanagatik ez zuela inolako aintzatespenik eskatu gogorarazten du, baina gizartearen aintzatespena merezi dutela iruditzen zaio. Frankismo-garaian pairatu zituzten delituen eta ankerkerien harian Argentinan planteatuta dagoen kereila baten babes gisa planteatzen den mozioa dela gogorarazten du. Bere aitonaren antzera, trukean ezer eskatu gabe borrokatu zen eta sufritu zuen belaunaldiari omenaldia eginez amaitzen du.

Maitane Nerekan andreak adierazten du BILDU taldeak gainerako taldeekin batera aurkeztutako mozioari beren babesa emango diotela eta lan eskerga aitortzen dion elkartze-erakundearen mozioa izatea baloratzen duela, oso talde desberdinek osatuagatik guztiak justiziaren eta oroimen historikoa berreskuratzearen alde egiten baitute lan. Berak ez duela frankismoa ezagutu adierazten du baina kamisetak eramateagatik edo adierazpenak egiteagatik haien aurka neurriak hartzea eskatzen duten baina, aldiz, frankismo garaiko horrelako salaketak egitea ahazten duten hainbat talde politiko badela ikusten du. Plataformak adierazten duen herri-mugimenduari bere babesa emanaz eta frankismoaren ondorioak jasan dituzten Getxoko bizilagunak salaketak egitera eta oroimen historikoari bizirik eustera animatuz amaitzen du.

Agustin Ruiz jaunak adierazten du Talde Sozialistak bat egin duela frankismoaren aurkako Euskal Plataformaren ekimenarekin eta oroimenaren alde lan

Los grupos proponentes han hecho suya la moción y añade como valoración personal que esta cuestión la siente muy cercana por los avatares de su familia en la que su abuelo fue gudari y que tras estar encarcelado luego tuvo que exiliarse. Recuerda que aquella generación no pidió ningún tipo de reconocimiento por la labor que realizaron pero opina que merecen el reconocimiento social. Recuerda que se plantea una moción de apoyo a una querrela que está planteada en Argentina que se refiere a delitos y atrocidades que se sufrieron en el franquismo. Finaliza rindiendo homenaje a la generación que como su abuelo luchó y sufrió sin pedir nada a cambio.

Maitane Nerekan indica que BILDU apoya la moción presentado conjuntamente con el resto de los grupos y valora que es una moción de una entidad asociativa a la que reconoce su gran labor indicando que está configurada por colectivos muy distintos pero que trabajan todos por la justicia y la recuperación de la memoria histórica. Manifiesta que ella no ha conocido el franquismo pero ve como existen grupos políticos que piden medidas contra otros por portar camisetas o hacer manifestaciones pero sin embargo se olvidan de este tipo de denuncias de la época franquista. Finaliza apoyando el movimiento popular que manifiesta la plataforma y anima a los vecinos de Getxo que hayan sufrido las consecuencias del franquismo a que presente las denuncias y mantengan viva la memoria histórica.

Agustín Ruiz indica que el Grupo Socialista se ha sumado a la iniciativa de la Plataforma Vasca contra el franquismo y reconoce la labor de los grupos que

egiten duten taldeen lana aitortzen du. 2013an oraindik gai hau lantzen egotea negargarria iruditzen zaio eta eskasa deritzo hainbeste urte igaro ondoren oraindik gai honi dagokionez talde guztien adostasunik ez egoteari. Genozidio-delituak ez direla preskribatzen gogorarazten du eta epaile argentinarraren jarduerari bere babesa ematen dio. Mozioak jasotzen den aintzatespena iraganeko eta orainaldiko gizarteari zor zaion zerbait dela eta iragana ezin dela berridatzi baina etorkizuna idatzi daitekeela adieraziz amaitzen du.

Javier Ruiz jaunak Talde Popularraren izenean adierazten du gai polemikoa dela eta bere taldeak frankismoari uko egiten diola eta, baita, beste edozein diktadurari ere, oinarritzko eskubideen, askatasun publikoen eta printzipio demokratikoen aurkakoak direlako. Franco hil ondoren, trantsizio-garai zail bat hasi zela gogorarazten du, izan ere, sektore batek ez zuen frankismoaren garaian gozaten zituen pribilegioak galdu nahi eta, bestetik, sistema desegonkortu nahi zuten talde terroristak zeuden. Garai horretan, erreforma politikorako Legearen bitartez prozesu bati ekin zitzaion; ondoren, amnistiaren Legea etorri zen eta Konstituzioaren onarpenarekin amaitu zen, zeinak, herritarren oinarritzko eskubideak eta askatasunak eta lurralde-ahalmenak izango zituen estatu bat jasotzen zituen. Konstituzio-esparruari bermeen eta adiskidetzearen esparru gisa balioa eman behar zaiola uste du. Bere taldea bat dator frankismoaren biktimei ordaina ematearen ideiarekin eta horri buruz araudi oso bat dagoela uste du, non, elementurik azpimarragarrienetako oroimen historikoaren legea den, nahiz eta ez datorren bat hainbat epailek eta taldek lege hori interpretatzeko eta aplikatzeko moduarekin. Mozio hau aurkeztearekin zeinu guztietako biktimei buruz 2009an

trabajan por la memoria. Le parece lamentable que en pleno año 2013 todavía se esté tratando este tema y esto es un déficit que después de tantos años no haya todavía un consenso de todos los grupos al respecto. Recuerda que los delitos de genocidio no prescriben y apoya la actuación de la juez argentina. Finaliza indicando que el reconocimiento que se recoge en la moción es algo que se debe a toda la sociedad pasada y presente recordando que el pasado no se puede reescribir pero si se puede escribir el futuro.

Javier Ruiz en nombre del Grupo Popular manifiesta que es un tema controvertido y que su grupo rechaza el franquismo por ser contrario a los derechos fundamentales, a las libertades públicas y a los principios democráticos como rechazan también cualquier dictadura. Recuerda que tras la muerte de Franco se inició una época de transición difícil porque un sector no quería perder los privilegios que gozaban durante el franquismo y por otro lado, existían grupos terroristas que querían desestabilizar el sistema. En esa época se inició un proceso a través de la ley de reforma política, posteriormente la ley de amnistía que finalizó con la aprobación de la Constitución que recoge derechos y libertades fundamentales de los ciudadanos y un estado con poderes territoriales. Estima que hay que poner en valor el marco constitucional como marco de garantías y reconciliación. Manifiesta el acuerdo de su grupo en la reparación de las víctimas del franquismo y estima que existe toda una normativa legal al respecto cuyo elemento más destacado es la ley de memoria histórica aunque rechace como están interpretando y aplicando algunos jueces y colectivos dicha ley. Opina que la presentación de la moción rompe el acuerdo al que se llegó en 2009 respecto a

egindako akordioa, Talde Popularrak babesten duena eta urteroko omenaldian han izaten dena, hausten dela uste du. Azken batean, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek BILDU taldearekin mozioa sinatzean beren eskakizun etikoak jaitsi dituztela uste du.

Koldo Iturbe jaunak erantzuten du PP-k gaiak haiek zeinek babesten dituenaren arabera deslegitimatzeke ohitura duela eta hori ez zaio demokratikoa iruditzen. Mozioak Argentinan izapidetzen ari den eta Estatu espainiarrean burututako krimenak argitzea xede duen kereila bati babesa ematea planteatzen duela gogorarazten du eta babesa emateak ez duela inolako akordiorik hausten. Estatu espainiarreko botereetatik Pinochet eta diktadura argentinarreko beste militar batzuk auzipetu direla gogorarazten du, estatuetako ordenamendu juridikoen izenpetutako nazioarteko akordioak ere errespetatu behar baitituzte, esterako, giza-eskubideei buruzkoa.

Javier Ruiz jauna BILDU taldea deslegitimatzen saiatzen da behin eta berriz, ETArekin indarkeriaren aurrean duen jarrerarengatik eta, kasu askotan, EAJ-PNV BILDU taldeari bere babesa ematekin aldentzen dela gogorarazten du eta gainerako taldeekin, besteak beste, PP-rekin, adostasunera iritsi nahi izan balitz haiekin ere hitz egingo zuketela, baina ez dutela egin, mozioak helburu politiko argia baitu, PP frankismoarekin identifikatzea. Egungo legediak frankismoaren biktimak aintzatesteke elementuak dituztela eta estatuak Nazioarteko Zigor Gortera joaz ikertu dezakeela azpimarratzen du, baina ez duela egin agintean zegoen alderdi politikoa edozein zela ere.

Maitane Nerekan andreak mozioak ez duela PP alderdia aipatzen adieraziz

todas las víctimas de todos los signos que el Grupo Popular ha apoyado y acude al homenaje anual. Cree finalmente que el PNV y el PSE-EE al firmar esta moción con BILDU han rebajado sus exigencias éticas.

Koldo Iturbe replica que el PP acostumbra a deslegitimar las cuestiones en función de quienes las apoyan, lo cual no le parece democrático. Recuerda que la moción plantea apoyar una querrela que se está tramitando en Argentina y que busca aclarar crímenes cometidos en el Estado Español y que este apoyo no rompe ningún consenso. Recuerda que desde los poderes del Estado Español se ha encausado a Pinochet y a otros militares de la dictadura Argentina ya que los ordenamientos jurídicos de los estados han de respetar también los convenios internacionales suscritos como es el convenio relativo a los derechos humanos.

Javier Ruiz insiste en deslegitimar a BILDU por su comportamiento ante la violencia de ETA y recuerda que en muchos casos en PNV se aparta de apoyar a BILDU y que si hubieran querido llegar a un consenso con el resto de los grupos como el PP, hubieran hablado también con ellos pero no lo han hecho porque la moción tiene una finalidad política clara que es trasladar una identificación del PP con el franquismo. Insiste en la que legislación actual tiene elementos de reconocimiento a las víctimas del franquismo y que el Estado puede investigar recurriendo a la Corte Penal Internacional pero no lo ha hecho independientemente del partido político que estuviera gobernando.

Maitane Nerekan replica indicando que la moción en ningún momento nombra al PP

erantzuten du, beraz, jarrera defentsibo horrek zerbait adierazten duela. Baita plataformak mozioa Udaleko talde politiko guztiei, PP taldeari izan ezik, aurkeztu izanak ere.

Koldo Iturbe jaunak mozioak ez duela PP alderdia aipatzen berresten du eta, bere ustez, bertan planteatzen denera gehitu daiteke; baina mozioa ez babestek frankismoaren biktimak ez aintzatestea eta haiei dagokien ordaina ez aitortzea adierazten du.

Javier Ruiz jaunak frankismoaren oinordekoei buruz hitz egiten duela azpimarratzen du eta hori betidanik egotzi izan zaiola PP alderdiari; beraz, bere ustez intentzionalitate politiko nabarmena du. Auzitegi Gorenak eta Giza Eskubideen Auzitegiak mozioan planteatzen diren antzeko salaketak ezetsi egin dituela gogorarazten du eta auzitegiei kasu komeni denean soilik egitea ez zaio demokratikoa iruditzen. Frankismoaren biktimak babesten dituen legezko laburpen badela azpimarratzen du eta Gorde Konstituziogileetan gai hau landu zela eta EAJ-PNV eta beste talde nazionalistek guztiz bestelako jarrerarekin adostu zutela gogorarazten du.

Agustin Ruiz jaunak Konstituzioa ez dela arau itxi bat adierazten du, baizik eta, etorkizunerako oinarriak jartzen dituela eta mozioaren inongo puntutan ez duela Alderdi Popularrak izenpetu ezin duenik ikusten; eta izenpetzen ez badute ez dela irizpide politikoengatik, baizik eta beren hautesleen alderdi baten botoak galtzeko arriskua saihesteagatik dela.

Mozioa bozkatzeko da eta onartu egiten da EAJ-PNV, BILDU eta PSE-EE taldeen aldeko 15 boto eta PP taldearen aurkako 9 boto lortzean.

con lo cual esa posición defensiva algo denota. Como también denota algo que la plataforma haya presentado la moción a todos los grupos del Ayuntamiento excepto al PP.

Koldo Iturbe se ratifica que la moción no nombra al PP y estima que puede sumarse a lo que en ella plantea pero que si no apoya la moción significa no apoyar el reconocimiento y reparación de las víctimas del franquismo.

Javier Ruiz insiste que la moción habla de herederos del franquismo lo cual se ha imputado siempre al Partido Popular y cree que tiene una evidente intencionalidad política. Recuerda que el Tribunal Supremo y el Tribunal de los Derechos Humanos han desestimando denuncias similares a lo que se plantean en la moción y no le parece democrático que a los Tribunales sólo se haga caso cuando convenga. Finaliza insistiendo que hay un compendio legal que ampara las víctimas del franquismo y recuerda que en las Cortes constituyentes esta cuestión se acordó con un talante muy diferente por parte del PNV y de otros grupos nacionalistas.

Agustín Ruiz manifiesta que la Constitución no es una ley de punto final sino que pone las bases de un futuro y no ve en ningún punto de la moción que el Partido Popular no pueda suscribir y si no lo hacen no es por criterio político sino por evitar perder votos de alguna parte de su electorado.

Sometida la moción a votación es aprobada al obtener 15 votos a favor: PNV, BILDU, PSE-EE, 9 votos en contra PP.

Horrenbestez, mozio hau onartu dute: En consecuencia, es aprobada la siguiente moción:

ZIOA

2010. urtean Argentinako epaitegi batek frankismoko krimenen aurkako 4591/10 Kereila ireki duela eta, Euskal Plataformak kereila horrekin bat egiteko eskaera aurkeztu zuen getxoko udalean.

Hori dela eta, behean sinatzen dutenek honako mozioa aurkezten dute bere onarpenerako, bat eginik eusko legebiltzarrak onartutakoarekin 2013ko ekainaren 20an:

1. Getxoko Udalak salatu egiten du Francisco Franco Bahamonde jeneralak 1936ko uztailean zuzendutako altxamendu militarra. Horrek, eta segidan izan zen gerrak, akabatu baitzituen 1931. urtean legez eraturako Espainiako, Euskadiko eta Kataluniako Gobernuak.

2. Getxoko Udalak salatu egiten du altxamendu horren ondoren berrogei urtez izandako erregimen diktatoriala; zeinak askatasunaren, justizia sozialaren eta eskubide indibidualen zein kolektiboen aldeko borroka eta disidentzia saiakera guztiak su ta gar zapaldu zituen.

3. Getxoko Udalak salatu egiten du nekazal-, industria- eta finantza-oligarkiak eta Eliza Katolikoaren hierarkiaren parte handi batek izan zuen jokabidea, kolpismoa babestuz lehenengo, eta ezarritako erregimen faxista babestuz, ondoren.

4. Getxoko Udalak honako konpromisoa hartzen du: 1936ko uztaileko altxamendu militarrek, erregimen frankistak eta Estatu-terrorismoak errepresaliatutakoek

JUSTIFICACIÓN

En relación con la apertura en el año 2010 de la Querrela 4591/10 contra los crímenes del franquismo en un juzgado argentino, la Plataforma Vasca presentó la petición de adhesión del Ayuntamiento de Getxo a la citada querrela.

Por ello los grupos abajo firmantes presentan para su aprobación la siguiente moción, haciendo suya la aprobada por el parlamento vasco el 20 de junio de 2013:

1. El Ayuntamiento de Getxo denuncia la sublevación militar fascista dirigida por el general Francisco Franco Bahamonde en julio de 1936 contra el régimen republicano legítimamente constituido en el año 1931 y la posterior guerra que acabó con los Gobiernos Español, Catalán y Vasco legalmente constituidos.

2. El Ayuntamiento de Getxo denuncia el régimen dictatorial posterior que durante cuarenta años reprimió a sangre y fuego todo vestigio de disidencia y lucha por la libertad, la justicia social y los derechos individuales y colectivos.

3. El Ayuntamiento de Getxo denuncia el papel jugado por buena parte de las oligarquías agraria, industrial y financiera y la jerarquía de la Iglesia Católica, con su apoyo al golpismo primero, y al régimen fascista instaurado después.

4. El Ayuntamiento de Getxo se compromete a adoptar las medidas necesarias para garantizar a los represaliados y represaliadas por la

erregimen horren inguruko EGIARAKO duten eskubidea bermatzeko beharrezko neurriak hartzeko konpromisoa, horien oinordekoek historia berridazteko egin izan dituzten saiakerekin kontrastatzeko; egun gizadiaren kontrako krimenak egin izan dituztenen zigorgabetasun egoera gainditzeko aukera eskainiko duen justizia eraginkorrerako eskubidea; eta frankismoaren ehun-milaka biktimek duten eskubidea, euren urratutako eskubideak direla-eta, ERREPARAZIO duina eta ez diskriminatzailea jasotzeko; eta azkenik, gizarteak bere osotasunean duen eskubidea aldaketa sozio-politikoak, juridikoak eta instituzionalak ezartzeko BERRIRO EZ GERTATZEKO BERME gisa.

5. Konpromiso horren haritik, Getxoko Udalak bere babesa eta atxikimendua adierazten dio Argentinako Errepublikako Buenos Aireseko 1. Epaitegiaren 4591-10 Kereilari, Frankismoan izandako genozidio eta gizadiaren kontrako delituen arduradunen aurka María Servini de Cubrçiak aurrera daramana,

6. Getxoko Udalak gizartea animatzen du frankismoaren kontrako Kereila hau babestera; frankismoan errepresaliatuak izan zirenek eta bere familiakoek kereila jarritz, edo Diktadura salatu eta krimenen eta kriminalen aurkako kereilarekin bat egiten dutela adieraziz.

91.- PP ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: EREAGAKO

